



HONDARRIBIA

43. Zenbakia

UDAL EUSKARA-KONTSEILUA

60 pta.

1991. Maiatza



PIKU ARBOLA BATERA IGOYI ETA HAN EGOYI

Hain errex eta ugari lortu ditzakegu gaur egun sendagaiak, ze, horretxek berak galdutako arazi digu gure baserriko amonek mende mendeko lortu zuten jakitate, gaxotasunak sendatzeko erabiltzen zituzten sendagai naturalak. Beharrek eragintza, landare ugari inguratuak bizi izateak, aberengandik ere gauza asko ikusiz ta ikasiz.

Aberastasu guzi hauek begi luzeko pertsonak egin zituen.

Ukutu ezina da, aurrerapen eta ugaritasunari esker gaitz asko desagertu direla, baina honek ere baditu bere alderdi txarrak: diruari lotua egotea, eta honek, aldiz, egiazen itxuran nonahitiki zipotza sartzeko ahalmena du, beraletatik zintzilikatuak geldituzeraino, hain menpean, alegia.

Erabat zorroztuak zeuzkaten begiradak, tankerak eta koloreak. Neronek egiaztatuta dut gure esneduna izandako Artzuko Konteserikin.

Egunero bezala esan nion:

- Ondo Kontesi?

- Ez, ba, ez hain ondo, eta badakit zer gertatzen zaidan... -eta esku gainak erakusten zizkidala, jarraitu zuen- Begira nere zainen kolore ilun honeri. Egun batzuetan belar miña hartu beharrean nago...

Nere aurpegi zoztuarekin esan nion:

- Koloretik?

- Bai, koloretik eta baita beste xixtematik ere: orratz puntarekin xixtatu zaina eta berehala igertzen da odola loditua dagoen ala ez...

Baina batez ere, oso laiak ziren xixariak

sortzen zituzten ondoreak sendatzen.

Zer pena Errezubi-ko amonak berarekin eraman zuela xixarien kontra egiten zuen kataplasma! Bere kantina esnearekin egunero bezala jexi omen zen Portura eta sukaldaren batean marrumaka negarrez arkitu omen zuen ama bat, sendagileak, D. Arturok, atsi-pena eman ziolako bere nexka titiari. Gure amonak kantina lurrean utzi eta haurraren gela sartu zen eta haren begi zorrotzak berehala igerrit zion xixare gaitza. Segidan haren esperientzia, jakitate eta eskuak kataplasma egiteari lotu ziren. Eta hementxe arkitzen naiz neure pena agertu beharrean, ez bat naiz gogoratzen osagai guztiez. Badakit surtako hautsa, binagria, ardoa, baratxuri asko eta beste hainbat gauza erabili zituela. Nahasketa guzi honek sortzen zuen usaina izugarria omen zen. Bada, gure andre baserriarrek kataplasma hartaz kopeta eta sugur inguruak estali zituen eta berehala umearen sugur zuloak xixare koskorak ateratzen hasi ziren. Gaur egun, erdi hilean zegoen ume hura, andre ederra dugu, aspalditxo kanpoan bizi dena. Gertaera honen berri berak eman zidan, berari berorren amak kontatu ziolarik.

Gure aurreko amonen esperientzia eta jakitate miresgarri hauen ondoren badira ere majia kutsuokak. Neska koskorra nitzela esku gaina guzia karritiaz bete nola neukan gogoratzen naiz, eta Hondarribiko andre baserriar bat konturatu zen itsuskeria hartaz berehala galdetuz:

- Zer ttun, karritak? Neska, hoyek oso errex kerlizen ttun!

- Bai? Nola?

- Biazan. Bilazan piku arbola bat eta igoyi bere tontor-tontorrera eta han



egoyi norbait pasatu arte. Orainxe hurre aurretik pasatzian deyn fuerte "to, to, to! Azuk hi!", eta begiratzen diñen, esaioun "to nere karritak hietzak", eta ikuxkun derrepente nola tango tinen".

Aurreratu bat ote genuen andre hura? Dena dela, arriskutsua iruditzen zait gizen xamarrakentzat, nola ez zaizun sugur muturrian karritia erme haundi bat ateratzen.

Bromak aparte, berrit diot pena dela hainbat urtetako jakite on eta naturalak gure zabarkeriagatik hain errex antzizia.

Lourdes Zubeldia.

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Maiatzak 6 - 12: Erauskin
Maiatzak 13 - 19: Mayi
Maiatzak 20 - 26: Iraola
Maiatzak 27 - Ekainak 2 : Fiz
Maiatzak 3 - 9: Almajano
Maiatzak 10 - 16: Erauskin
Maiatzak 17 - 23: Mayi
Maiatzak 24 - 30: Iraola

Mayi: Alm. Alonso kalean - 642191
Iraola: Javier Ugarte kalean - 641027
Erauskin: S. Pedro kalean - 641018
Fiz: Donostia kalea (Soko) - 644316
Almajano: Mendelu - 640068

TXANDAKO OKINDEGIAK

Maiatzak 12: Martinez
Maiatzak 16: **Ez da ogirik egingo.**
Maiatzak 19: Arratibel
Maiatzak 26: Garmendia
Ekainak 2: Martinez
Ekainak 9: Arratibel
Ekainak 16: Garmendia
Ekainak 23: Martinez
Ekainak 30: Arratibel

EUSKARAZKO MEZAK

Egunero arratsaldeko 7etan Portuan.

LARUNBATETAN:

Goizeko 8,30etan Betherran
Goizeko 9etan Amuten
Goizeko 9,30etan Guadalupe
Goizeko 11etan Portuan

Inprimategia: Rogelio Fernández
Juan Arana, 27 - IRUN
Fotokonposizioa: CROTEX - IRUN

SAN JOSE-REN ALDAREA

Hileroko artikulua idatzi aurretik, zer gai erabili izaten da nire lehen ardura. Batzutan aukera erraza da, berez sortzen zaidalako, baina bestetan gai bila jartzen naiz.

Gaurko honetan, esate baterako.

Hondarribiaz ari behar dudanez, begiratzeko datuak hartu behar gertatuko zaibait gai bezala erabili nezakeen. Hiri honetan, bi gai nagusi: Aste Santua, sarri erabili dudana, eta beste bat, San Jose eguna. San Jose, nire santuetatik maitagarrienetako bat denez, ikusi nahi izan dut ea Hondarribiari dagokion zerbaitekin lotu nezakeen.

Kasu hauetan, Hondarribiaz hitzegiten duten liburuek aztertzen ditut, badira batzuek.

Eta San Jose-ri eskainitako aldare bat aurkitu dut.

Florentino Portu jaunak argitaratu duen azken edizioan (1) ikusten dut herrian badela aldare bat Jose Sainduari eskainia. Ez dago eliz nagusiaren hala ere, baizik eta Casadevante Portaleko Erakustokian.

Ez dakit zergatik Eliza nagusitik erakustokira aldatu zuten.

Baina hara Florentino Portu diona:

"Jose Sainduaren irudia, elizako eskuin barnealuzegoen zegoen, pareleri atxekia, gaur Ama Birjinaren beiradura dagoen lekuan. Aldare honek bi zati zituen: San Joseren irudia bera erdian, beirazko itxidura batekin, eta bi hegaletan, San Joakin eta Santa Ana. Beste zatiko erdian, Karmengo Ama.

Tailuzko erretaulak, zutabetan zurgintza-aren atributuak zituen".

Orain non dagoen esan eta gero, Portu jaunaren kapitulu honen azken esaldi bat dago:

"San Joseren irudia, Jesu haurra gabe, Hendaiako elizaren aldare nagusiaren bigarren zatian dago, lehen Parroki honetan Pila-reko Ama Doatsua zegoen aldaerari".

Hara gauzak nola gertatzen diren.

Bestealde, nola neroni bi zurginen biloba naizen, aita bera eta bi familietako osaba guztiak zurginak izan ziren, eta familartean Joxe edo Joxemari izeneko aitona, lengusuak eta anai bakarra ere Joxeba zen, urrutirago jo dut, ea Euskal Herriko zenbat herrian Jose Saindua kontuan eduki duten ikusteko, eta **Añamendik** (2) ba ditu batzuek katalogatuak: ARABAN: **ermitak**, Estabillo, Gamarra Menor, Nanclores de la Oca eta Salinillas de Buradon-en; Gasteizen **plaza** bat. GIPUZKOAN: **ermitak**, Arrasaten, Azkoitin, Belantzan, Deban, Olabarrietan, Oñaten eta Bergaran. **Kapera**: Tolosan, eta **komentua** Zumaiain. NAFARROAN: **ermitak**: Artabin, Artazan, Izaizun, Oliten eta Tafallan; **zaharren egoitza**. Korellan, eta **hospitala**, Beran. BIZKAIAN: **ermitak**: Elorriñ, Mallabín (bi) eta Truziosen; **eliza**: Lekeition (Jesuren Konpainia), **komentuak**: Abandon eta Sestacón. LAPURDIN: **kapera**, Baionako Katedralan, XVIII.

Amaitezko, **Abesti** bat ere badu San Josek, gutxienez: Aita Donostiak Iruritan jasoa: "**Jose, ekar didazu**" du izena: "Jose, ekar didazu, sointxu bat egur, Haur hau otzak il etzan bizi naiz ni beldur, ama, ez du ez otzak

ilen; Birgina Maria, haur orrek du berekin, du dibindadea". ("Jose", 373 orr.) (2)

Azkenik, ikusi izan nahi dut bi mila urtean zehar Jose izeneko Aita Santurik izan dugun: Jose, edo Joseba, (Pepe, ez) izenarekin alegia; irakurri dut zerrenda luzea, kuriositatez, bi aldiz, eta nik behintzat ez dut bat ere aurkitu.

Errepikatzen den izen asko ikusi dut, baina Jose bat ez.

Eta neuk hau izan gehien maite dudane-tako bat; San Martinen keja txikiarik ere ez badut.

Martin Ugalde

(1) *Hondarribia: Notas históricas y curiosidades*. Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Hondarribiako Udal-a. Donostia, 1989, 611 orr.

(2) "Jose", 373 orr.

"PIRU-MIRU" REN ERANTZUNAK


delako.
Tunei asko duenez, lur azpitik ibiltzen
mua. Lezo eta Olabarrietan, (c) satorra. (d)
2.-a) Bost (b) Hendala, Irurri, Horda-
1.-a) Larogelaitzaren meteo.

JOSE LUIS LAPITZ UDALETXEAN JUBILATUA

Berrogei urte Udaletxean hondarribiarrak auzpegi goxo eta atseginez atenditzen igarotzeak herriarren eskerririk onena merezi du, batez ere lehiatila hori haziendakoa denean, aski larritun hurbiltzen bait gara denok bertara. Gizon ederra izaki herriarregana makurtzeak ez dio galeratzen Alarde egunean artxero tente izatea. Udali lankide eta zinegotziek ere bere atxikimendu berroa adierazi zioten jubilario eguneko luntxean. Izan ere, gizona umoretsu eta jator egiten duten bi zaletasun eder ditu gure Jose Luis Lapitzek: abestia eta sukaldaritza. Goxoki soziedadean badakite horren berririk eta horregatik egin zuten presidente, bai eta plater bikainak prestatzeagatik merezimenduz saritu zuten epaimahaikoek. Parrokiako koruan ere ezagutzen dute bere tenor linbre zolia. Orain, legatza eta xapua lasaia prestatzeko aukera izango du Jose Luis. Hori suertea ingurukoena!



"ETXENA" MARGOLARI HONDARRIBIARRA



José I. Etxenagusia Errazkin.

Jose Ignazio Luis Etxenagusia, artista gisa "Etxena" sinaduraz ezaguna, Hondarribiko Udaletxean idazkari izan zen Jose Etxenagusiaren eta honen emaztea Domínika Errazkinen semea. Hiri honetan jaio zen 1884eko Otsailaren 1ean, Murruaren aldetik 2 zenbakia eta lehen Fuentes y Gorgot zen kalearen aldetik 1 duen etxean.

Bere gurasoek, kristau zintzoak izaki, seme-alabak lehenbailehen batiatzeko orduko ohiturari jarraituz, jaio eta hurrengo egunean batiaitu zuten semea Igo-kunde eta Sagarrondoko Andra Mariaren Parrokian. Jose Antonio Etxenagusia izan zen paldia eta Gertrudis Lizarda maldia.

Denboraren buruan margolari ospetsua izango zen hark jaioterrian bertan ikasi zituen lehenengo letrak, txiki-txikitandik marrazki zalelasun handia erakutsi zuen zuelarik. Geroago

Bergerara bidali zuten bere ikasketak Arte Eskolan jarraituzera.

Txiti gaztea zelarik, Burgosko Gobernu Zibilean lanpostua lortu zuela eta, bertara joan zen lanera. Hala ere, marrazki ikasketak osatu nahi zituela eta Bilbon erratzasun handiagoak lortuko zituelakoan, Gobernu Zibileko lana utzi eta aipaturiko hiriburura jo zuen. Han Tuter-Bilbo trenbidearen bulegoan sartu eta lehen ofiziala izatera iritsi zen.

Gerra Zibila hasitakoan, beste askok bezala, Jose Ignazio Etxenagusiak Bilbo defendatuz borrokatu zuen. Handik Baionara joan zen eta han ere marrazki eta pintura landu zituen, horretantxe gastaturik aurreratua zeukan diru apurra eta serideek bidaltzen ziotena. Donostiako izeba baten heriotzak diru piska bat utzi zion eta orduan Etxena Frantzia utzita Erromara joan zen 1876 urtean, eta hantxe bizi izan zen hil arte, erabat pinturaren murgilduta, huraxe bait zuen bere bizitzako ametsa.

Jose Ignazio Luis Etxenagusia, izaera goxo eta jatorrekoa, harremanetan atsegin bezain fin eta dotore, Anita Purisoli veneziarrarekin esposatu zen; ez zuten, ordea, seme-alabarik izan eta ezkondu eta berehala berexi ziren, artistaren alaitasuna eta sentipen noble kristauak ezagutzen zituzten lagun eta adiskide guztien harrituraz.

Etxenak Erroman idazle, filosofo eta beste artista askorekin izan zituen harremanak; haien laguntasunean, ikasketaz, bertako arteleku, museo eta elizak bisitatuz osatu zuen bere prestakuntza artistikoa.

Bere lan opearoan "Kristo Kalbariora Iristen" obra nabarmentzen da. Horrekin, 1884ean Madriden izan zen Arte Ederretako Erakusketa Nazionalean bigarren mailako domina irabazi bait zuen.

6,5 x 4 metrotako oihala da. Garai hartako kritikariek aho batez adierazi zutenek, Gurrutzbideko gertakari ikaragarri hura arras ikusmolde berraz irudikatu zuen Etxenak, ordua arteko guztien antzik eta zorrik gabe.

Kristo, erdiko figura, nekaturia ageri da, Kalbario mendiko ibilaldiak akiturik. Jainko izatea oro erazi dioten Gizona.

Koadro hori erakunde ingeles batek erosi omen zuen eta honek Edimburgoko artzain protestante bati saldu. Gaur egun Eskoziako hiriburu horretantxe omen dago.

Pintatu zituen eta hainbat erakusketetan aurkeztu zituen akuarelen artean Madrilgo egunkarietan honako hauek goraiatu zituzten asko: **Odalisca bat, bi neska lagun, eta Rodrigon eta mutiko batzu husar ofizial baten gorpua miatzen.**

Haren obrak ditugu beste hauek ere:

- a) Gipuzkoako Aldundi Jauregiko eskaileira apaintzen duen bidniera ederraren bozetua, bertan Ailontso VIII Foruak zin egiten ageri da.



Olinaztar eta Ganbostarren arteko bakea. (Etxenagusia).



Jesus Kalbarioan (Etxenagusia).

- b) Begofia Andra Mariaren Santutegian dagoen oleoa; gaia Bizkaiko Zaindarien Koronazioa da.
- c) Hondarribiko Guadalupeko Basilika erakusten duen koadroa.
- d) **Jesus Kalbarioan**, bere jaioterrian Igo-kunde eta Sagarrondoko Andra Mariaren Parrokiko sakristian ederretsi dalekeen pintura.
- e) **Irrintzi**, euskalduntasuna darian koadroa eta ospe handiaz gainera Erroman saldu zuenean dirutza handia ere eman ziona.
- f) Bizkaiko Aldundiko errezeptzio aretoko goi eta aurrealde nagusietan ikusten diren irudi aipagarriak, Guinea margolariarekin batean eginak; eta jauregi bereko atsedeen edo erre-gela batean egindakoak, bertako goian Denboraren alegoria bat agertzen delarik, aberatsa marrazkiz eta kolorez.
- g) Bizkaiko Aldundiak eskatutako erretratoak; horietako bat dugu Estanislao Jaime Labairu historiagile ospetsuarena.
- h) Aipatuenetariko lanen artean honako hauek ditugu: **Sanson eta Dalila**, **Ezkontzailea**, **Leda eta zisnea**, **He-ro eta Leandro** eta beste asko, paganoak nahiz erlijiozkoak.

Serapio Mujika Probintziako artxibaniak zioenez, Ostiral Santu eta Pazko egunetako prozesioetan Jangoiko Guaradatzailak eraman ohi dituzten jantziak Etxenak diseinatuak omen dira.

1891eko Abuztuaren 30eko Udal Bilkurako aktan honela irakurtzen dugu: "*Se dio lectura de la cuenta de los gastos ocasionados en la confección de la nueva bandera con el escudo de armas de la Ciudad importante pesetas "doscientas treinta y dos con cincuenta céntimos"* presentada por el Sr. Dn. José Echena., *se acordó pagar. El Sr. Alcalde hizo presente a la Corporación que el Sr. Echena ha pintado en Roma desde donde ha sido remitido un magnífico escudo de armas en la refenda bandera sin retribución y como regalo al Ayuntamiento de su pueblo natal.*

Se acordó por unanimidad que la Corporación aceptara este regalo y que se pasara un atento oficio al Sr. Echena dándole las gracias por su artístico donativo, haciendo constar así en el acta de la sesión".

Irtsi ote zen bandera hura Hondarririba? Gustatuko litzaidake ikerketa hau egitea, baina, denok dakizuenek, idazteko gauza naizen arren, ez naiz inez ibiltzeko gai, beraz, nere alaba Kontxitari uzten diot egitekoa, jarraitzaile egokia bait dut Hondarribiko historiaren ikerketan.

Etxena Erroman hil zen 1912ko Urtarri-

laren 31an pulmonia baten ondorioz.

Gipuzkoako Aldundiak 1912ko Otsailaren 15eko bilkuran aho batez erabaki zuen Gipuzkoako seme prestu honen heriotza zela eta Diputazioaren nahigabea aktan jasotzea, eta hildakoaren familiari doluminak adieraztea.

Antzeko dolu hitzez dugu Hondarribiko Udalaren akordio bat, urte bereko eta hil beraren 17ko bilkurakoa.

Hondarribiko Udal Batzak 1912ko Irailaren 22an, berriro ere, jaioterriaren izena goi-goian jarritz bere bizi-tza ikasteari eta lan egiteari eman zionari esker-ona aitortu nahirik eta haren oroitzapena betiko gordetzearen, aho batez erabaki zuen "Etxenagusia Margolaria" izena ematea lehen "Fuentes y Gorgot" zeritzan kaleari, hantxe jaio bait zen artista ospetsua.

1946ko Irailaren 10ean handikiro inauguratu zen Hiria bere seme argi Etxena pintoreari eskaini dion monumentua, Udal Batza, agintariak eta herritar ugari bertara biltzen zirelarik.

Monumentua Murruan dago, margolaria jaio zen etxearen parean.

Hondarririba 1991eko Martxoan.
Florentino Portu.

ITSAS-LUREN BERTSO AFARIA

Joan den Otsailaren 16an ITSAS LUR Ekarlean aze nolako lagunarte ederra bota genuen! Afaria, zegoena zegoela, airoso eta txukun serbitu ziguten herriko zenbait gazte dotore bizartsuk. Eta ondoren, bertsolariak! Hondarrribian, lehengo ohitura zaharrean, mahai baten inguruan, bertsolariak aspaldiko partez. Iñaki MURUA eta Sebastian LIZASO. Bertan egokitu ginenak, sartzeko ditxa izan genuenak gozatu ginen ederki, txalotu genuen fuerte, irri keinua ez genuen gero eta gero ere galdut. Eduki dugu zer esana franko geroztiko egunetan ere.

Zertan aritu ni, ordea, hemen hango kronika egin nahian, bertsolariak hiru-bat ordutan jo-ta-ke isildu ez eta den-dena heurrek esan zuten eta! Hona nola ekin zioten:

("LI"), S. Lizaso izango da eta ("MU"), I. Murua.

LI: Bertso afarien moda da ta herri askotan zabaldu benetan diot guretzat behintzat gauza honek merezi du. Oker ez banaiz Hondarrribian lehen asko ez da izandu baina hasiera dugu gaurkoa sekula ez da berandu.

MU: Gaur entzulerik etzaigu falta hori ez al da nabari bi bertsolari gaitozelako hemen afaltar ugari. Orain gehienak hortze isilik ta bi bakarrak kanitari, orain gehienak bertsozaleak gero denak bertsolari.

Gaijartze lanetan norbaitek egin behar eta neuni jarri ninduten, onerako nahiz txarrerako. Agian, bertsolariak heurak batere makal agertu ez zirenez, beuden gisara utzi behar nituen ondo izatera. Alabaina, gaiak jartzeko erruz! Gaiak jartzeko, bada, agindu zidaten, eta hala, nire agindura hasieran gai honetara lotu ziren bertsolari biak:

"jakin izan dugu arraun entrenamendutan zabilatzela biok, bata Orian eta bestea Urolan. Bejondauzuelat Hondarrribiko traineruan, berriz, mutil batek baja eman omen du. Arraunlari bat falta, beraz. Hona hemen Hondarrribiko Junta. Ager lezazkiozue bakoitzaren abilitadeak eta bestearen debilitadeak."

LI: Junta hemen da jakin dudanez beraz kontuak atera, oso gutxitan dadukazue orain dagoen aukera, baldin eta ni sartuzten banaiz traineroan barrena Hondarrribira etorriko da aurtien Kontxako Bandera.



MU: Hori esan du baina arrazoi alperrikakoa bait da, bistan dagona adieraztea horretantxe nago nahiñ: hau trainerura sartu liteke uretara erorita banderarentzat ez da tokirik hau traineruan jarrita.

LI: Gogoangarri gerta liteke gaur egin dudari bisita eta puestoa nere ustetan dadukat irabazita: etortzerako neretzat zela nola negon sinetsita horregatik etorri naiz ni jertse berdea jantzita.

MU: Hainbat purukin kelarre pranko badauka bere koitxoan, ez dauka bate abildadentz traineruaren jokoa. Seguru asko kea sobrantan hain barrun jarritakoa: jende guztia geldituko da baporea dalakoa.

LI: Inoiz edo behin erretzen dakit hori zertan egin uko, hala ta guztiz eskeintzen naiz ta hortan ez naiz beldurtuko. Ni traineroan jarriko banintz patroli edo-ta lekuko seguru egon aurreko puntan unik ez dala sartuko.

MU: Beraz hori're gerta leikela denok gaude ikusita, astakeriak egingo ditu honek egiten hasita: baldin patroliari lekuan inoiz atze horretan jarrita bestek itoko lituzke honek

atzeraka erorita.

LI: Laguna zertan jartzen didazu neri holako trantzea? hobe zenduke hitzegin aurrez piska-piskat pentsatzea. Begira nora iristen zaigun Muruan ezagutzea: nola liteke ni erorita beste denak itotze!

MU: Hasieratik hala esan det ta eman det aditzera: noski Lizaso eroriko da azkar kokotez atzera. Gainontzekoak danak begira aho zabalik gainera, trainerua're botako luke honek berakin batera.

LI: Ikusten denez trainerorako biok gaude bero-bero eta disputa hori sortzerik ez nuen aurrez espero, erabaki ezinik ez dago zer egonikan luzaro: biotatikan onena hartu aproba eginda gero.

MU: Aproba egiten baldin badugu honen usteak akabo, bion artean horretarako egokiena ni nago, honek segoa gehitxo daduka gainera baldarra dago, lan hortarako behar dituzu hogei kilo gutxiago.

Noizbait eten egin behar, bada, eta eten nien errosarico. Halere, lau cinak emanda, lehengo gai berean jarraitzeko desiatzen zeudela nabari utzi nahi izan zidaten.

Lau oinak Sebastiani: IRITZIA,
IRINTZIA, ITXIA, BITXIA.

Muruak eman digu
bere IRITZIA
gezurra sinestea
zer gauza BITXIA!
Traineroko atea
dauka ITXIA,
gora Sebastian da
denen IRINTZIA!

Lau oinak Iñakiri: FALTAN, TAN-TAN,
SANTAN, PLANTAN.

Traineroko atea
honek jo du TAN-TAN!
arraunik nahiz ez duen
ikusit inoiz SANTAN.
Kiloak hor sobranite
fundamentu FALTAN,
golfo galanta da hau
formalaren PLANTAN.

Lau oinak Sebastiani: MAIZTER, MISTER,
LAISTER, IZTER.

Berdin zait neri nagusi!
berdintu zait MAIZTER
bainan aproba ere
egingo det LAISTER:
erakusten baditut
belau eta IZTER
izendatuko naute
Euskadiko MISTER.

Lau oinak, azkenik, Iñakirentzat:
GORPUTZIK, HUTSIK, PUTZIK, GUTXIK.

Horrelako iztarrak
noski dauka GUTXIK,
ez daude hezur hoiek
mami gabe HUTSIK.
Baina honek ez dauka
indarraren PUTZIK
erantzita ez da hor
azaltzen GORPUTZIK.

Lan klase asko egin zuten nik aginduala.
Denak ez du hemen tarterik noski. Beraz,
bestenik ezer zuei irakur aukeran jartzekotan,
AIUA hitzez bukatuz Iñaki Muruak osatu
bertsoa emango dizut:

Bertako hitz bat gaitzat hartuta
doa oraingo saiaua:
itsaso ama kutsatu zaigu,
hil-zon dago karia,
lanikan gabe etsipenetan
euskaldun gazte laiaa...

Hoiek horrela ikusi eta
zeinek ez izan AIUA!?

Azken-azkenean zer egingo eta ez ziren,
bada, bi bertsolariak entzule jendea toreatzen
hasi...? jendarteko bertsozaleak zirika eta
zirika? Eta, egia esan, han geundenak denak
harritu ere egin ginen Hondarrribian nolako
bertso kantariak dauzkagun ikusita,
zaharretan nahiz gaztetan. Iñaki Muruak:

barkatu baina erruki,
inor ez degu bertsoetan jaten
ez beldurman eduki:
zure tanda're heldu da eta
hasi Antonio KULLUKI!

Eta uste duzue Antonio kikildu, lotsatu,
isildu zenik? Kia...! Dapal bota zuen berea
asko pentsatzen egon gabe:



Bertso zale ta bertsolariak bat
legoke isilik triste:
JOXE DUINAT mutur hortatik
bota zak bat edo beste.

Bai gure Joxek egoki erantzun ere:

Bertso batzuek kantatutzeko
aukera nola didaten
ez dakit onak kantatzeko aina
gaurkoan izango naizen.
Ni baino jende bertsolaria
hobea badago hemen
eta horiek ere txandaka
bana kantatu dezaten!

Maddi (ala Mayi?) Iza ere tentatu zuten
eta bai honek bertso mardul askoa moldatu
ere erantzun gisa. Lastimarik ez nuen
grabaketan jasot! Muruak berak esan zidan:
huraxe izan omen zen gau guziko bertsolari
onena zailantzarik gabe. Ez da nik asmatua,
Maddi. Sebastianek ere, norbait tentatu
behar eta:

Mahai mutur horren beste aldean
sua piztuko det auri
eta parean gertatzen dena

KULLUKI:

Norbaitek esan dizute eta
zuek hortikan arititu,
Antonik'e bertso batzuek
kantatzekoak badituz.
Aski kontentu lehen egondu naiz
ta barrendikan sufritu...
Nahi duzutena hortik bota ta
nik egingo dut adituz.

(Gogoan izan familian bazuela arrats
hartan nahigabe eta tristura aski gizajoak
bere iloba zela-eta.)

Geroago ere bota zituen Antonio Kullukik
bertso gehiago, errez asko gainekera.
Zorionak, Kulluki!

Dena dela, mixikoa ez dadila bakarra
izanketu. Gure herriko bertsozaleak (itsastar
nahiz baseritar) merezi dute eta horrenbeste.
Eskerrik asko, ITSAL LUR. Hurrengoaren zai.

Jesusmari Mendizabal

1991eko Martxoan

AGUR AURTENGO HERRI OLINPIADARI

Urtero bezala, aurtengoan ere arrakasta handia eduki du Olinpiadak herri giroan, gainera parte hartzea ere nabarmenki handitu da oraingoan berrogei ekipo inguru aurkeztu direlarik.

Olinpiadak, herrian nolabaiteko "saltsa" jartzan duela esan beharra dago, horrez gain herrian ez bait dago gauza handirik gazteria dibertitzeko.

Dakigun bezala, Olinpiadako frogan artean, parodia da ezagunena eta jende gehiena erakartzen duena. Aurtengoan arazo ugari izan dira parodia dela eta ez dela. Hasteko, Olinpiadaren zuzendariek baimena eskatu zieten udaletxekoel, parodia polikiroldegian egiteko (euria egiten bazuen edo), eta udaletxeko Kirol Kontseiluak baimena ukatu zuten. Ukapen honen aurrean, olinpiadakoek biler bat Bentan egitea erabaki zuten, eta asko pentsatu ondoren, protesta gisa, parodia atzeratzea erabaki zen. Baina Kirol Kontseiluak hau jakin bezain laster, itziz "bapatean" aldatu zuten eta polikiroldegia olinpiadakoel "uztea" erabaki zuten (jakina da, polikiroldegia ez dela "jauntxo" batzuenak bakarrik, herri guztialarena baiziki).

Azkenean dena bukatu zen ongi eta egin zen parodia. Jendetza izugarria erakarri zuten polikiroldegirantz, bi mila lagun inguru, arrakasta handia lortuz.

Bentan 43 taldek hartu zuten parte eta pa-

rodia amaitu ondoren honako hauek gerta-
tu ziren lehen hamarrak epai mahaikoan
erabaki:

- 1- Pottage.
- 2- Txistu.
- 3- Jo ta Poto.
- 4- Azken pixarrak.
- 5- Neil Armstrong-en e.o.
- 6- Alaxka ta Bakka.
- 7- Ajolakabiak.
- 8- Maxina sex ajolik ez.
- 9- Sorginak.
- 10- Flaxiya

Pottage taldea izan zen gau hartako irabazle nabaria, Mikel Sevilla bere partaidea izan zelarik protagonista. Bere grazia ezaguna agertu zuen eskenatokian, "soy marion" edo horrelako zerbaiz zioen abestiarekin; esan beharra dago, gainera, asko gustatu zitzaiola jendeari.

Esan bezala honen ondoren "Minxoriak" taldeak jo zuen, giroa animatzeko, eta honekin bukatu zen parodia eguna.

Beranduago, Maiatzaren 17an, Olinpiadako azken bazkaria egon zen Bentan. Bertara, olinpiadetako talde guztiak eta talde bakoitzak zituen gonbidatuak azaldu ziren ongi pasatzeko asmotan. Bazkaria nahiko nahasia izan zen, jendearen ezinegona nabari bait zen. Honen amaieran Olinpiadako azken

saikapena eman zuten urtero bezala. Aurtengo irabazlea "Pottage" taldea izan da, Parodian ere irabazi zuen taldea, honen atzetik "Xolobero" taldea zegoelarik. Esan beharra dago, olinpiadetan sartu ziren talde guztiak ez zutela klasifikatzea lortu, batzuk "jokoz kanpo" geratu bait ziren, frogatzen zuten ez aurkezteagatik.

Bazkal ondoren hasi zen "saltsa" guztia; "Joxelu anaiak" deituriko soinu-joleak ekarri zituzten jotzera eta giroa bero-bero jarri zen; jendea "oso pozik" ikusten zen, "animazio" handiz. Oso berandu arte egon zen musika, ordu bi terdiak inguru arte; jende asko zegoen, halere, Bentan dantzan, euri pixka bat hasi bait zuten.

Maiatzaren 17ko gau hura oso gau alaia izan zen bazkari hartara azaldu ziren gehienez, baina azkenean ustekabeak bultzatzen samindu zituen hondarribiarren bihotzak, gau hartanxe gertatu baitzen Lander Emazabel mutil gaztearen zortizarreko ezbeharra. Goian bego Lander laguna.

Beraz, honela izan zen olinpiaden amaiera aurtengoan. Espero dezagun hurrengoan ere pardaizetza handi hau mantentzea edota oraindik talde gehiago sortzea ere, Hondarribiko gazteria "elkartzen" duen ekintza osasungarri eta "olimpiko" honetan.

Zirauna



ADRIAN NUEVA YORKEN??

Enfin, beti ohi den bezala, mundua zapi bat da, eta horren testigu dugu duela hilabete pare bat Estatu Batuetan gertatu zitzaidana.

Gertatu izan zait bai, Madrilo Puerto del Sol delakoan paseatzen eta... hara, Hondarribiko Institutuan ibiltzen zen neska bat topatu, eta "kaixo, zer ari zara hemen, Madrilén?". Badakizu, batzuk estudiantzen, besteak musika ikasten...

Edota, igande eguerdi batean Rastroan gazte talde batek atentzia deitu, hurbildu, eta... han non ikusten dudana bidai kulturala egiten ari den UBiko ikasle taldea.

Beste kasu batean, zinematik ateratzera-koan neska bat hurbildu zitzaidan, eta... "zu Hondarribikua zera, ez?" Ba, bai, hangoa naiz.

Zeutara asteburua pasatzera joan eta moro eta soldadito tartean guztiz galduta nengoela, "Kaixo, zer moduz?" Ai ene, a ze sus-toa! Bai, han ere topatu nuen soldaduzka egiten zebilen hondarribitar gazte bat.

Gertatu izan zait ere Londresko metroan eskilera mekanikoetan lagun bati euskaraz ari nintzaiola atzetik ahots moztu batek "Nonguak zazte?" eta buelta eman nuenean, hondarribitar bikote ezkonberri bat zela konturatzeara.

Zirkuntantzia antzekoetan ikusi izan dut neure burua behin baino gehiagotan eta, egi-a esan, beti pentsatu dut kasualitatearen gau-za zela kasu gehiagorik egin gabe.

Gertatu izan zaizkit bai horrelakoak, bai-na tira, hau... azken hau gehiegi da!

Nueva Yorketik bospasei ordutara da-goan herrixka batetako hotel batean nen-bilen lanean, eta... abuztuko edozein beste arratsalde batetan bezala egun hartan ere la-kuan bainu atsegin bat hartu ondoren, uni-forme jarri eta restauranterara joan nintzen lanera.

Halako batean restauranteko atetik nere izena oihukatzen ari zirela entzun nuen, be-grada haruntz zuzendu eta "ar yu espanxi?" galderari balez (enfin, zertarako hasi hemen esplikatzin ezet, euskaldunak ez garaia esp...) bueno, balez erantzun eta... TOR!! Egunkeri New York Times egunkariko orrial-de batetik ateratako zatia erakutsi zidaten.

Arraroa izaten zen egunkarian Estatu es-painoleko berrien bat agertzen zen eguna, eta beraz momentu hartan periodikoa irakur-

LETTERS

Continued From Page 13

Spain

To the Editor: On July 29 you ran an interesting article on the Galicia region of Spain and the edible barnacles called percebes. But the caption about a "Basque fisherman selling the shellfish" must have been a guess. Maybe a fisherman; probably a merchant. The Gallegos are not Basques, who live hundreds of miles to the east. The man was not wearing a Basque boina but a French-Galician beret.

RUTH REDDING
Oak Bluffs, Mass.

Editor's note: The man selling per-cebes was photographed in Fuenter-rabia in the Basque region of Spain.



Kurt Wyss for The New York Times

Selling perches in Fuenter-rabia, Spain.

izen ari zenak NEWS FROM SPAIN ikusi zue-nean, ni konten jarriko nintzela pentsatuaz, artikulua hartu eta nigana etorri zen. Konten bai, ez zekien berak momentu horretan zein-nen argazkia zekagren eskutartean!!

Artikula irakurtzea ez nintzen inixi, egi-a esanda titulua ere ez nuen irakurtzeko den-borarik izan argazkira begirada zuzendu eta hain ezagun nuen Adrianen aurpegia bertan ikustea iruditzi zitzaidanean sentitu nuen ha-ridura eta sorpresagatik.

Aiba la India! Ezin da izan! Baina... zer a-ri da gure Adrian argazki honetan? Eta... nola irixi da argazki hau New York Times egun-karira? Artixiboko argazkia ote da??

Baina beno... zer egin du munduaren beste puntan notizia izateko??

Erreakzionatzea kostatu zitzaidan, hain da arraroa erabateko mundu ezberdin eta urrun batean zaudenean horrelako egoera

batekin topo egitea... Bueno, azkenean erreakzionatu nuenean, izugarriko ikusmi-ra sortu zitzaidan artikulua zeri buruz izango ote zen jakiteko.

Irakurri nuen, eta... a ze nahasketa duten amerikarrek buruan! Esan ohi den bezala, ez dira enteratzen, batak gure Adrian arrantzale galiziarra dela eta mariskoa saltzen ari de-la, gainera buruan daraman txapela frantses tipikoa dela, besteak notatxo batez nahastu-ta dagoela esaten dio, ezetz, gure Adrian Hondarribiko euskaldun bat dela, bere txapela bezain euskalduna eta, arrantzale zein merkatari, saltzen ari dena lanpernak direla, e.a.

Horretan ari dira gure Adrianekin gora eta behera, zeinek arrazola izan, eta nik bi-tartean behin eta berriro argazkia begiratzeari ekin diot, ezin sinisturik.

Ane Muñoz

BLAGAN

JUAN MARI BELLO



Kertze-ko antzerki bat. Amelia Etxegolein, Marisol Villar, J. M. Bello, Ramuntxo Etxaniz, Juanita Kosta, Anjel Garcia eta Ana Mari Salaberria.

Haurtarotik saltza eragile ezinegona izaki Kertzepeko mugidetan ikusiko dugu txit goiz, geroxeago Klink fundatzen eta gidatzen. Halako batean, Munizipaleko zenbaki-estropadetan trebatua zela eta, Hondarribiko Arraun Elkarteak fitxatuko du Juan Mari dirukutxaren lemezain izateko.

1940ko uztailaren 16an Denda kalean jaio zenetik beti bizi izan da goian, Kailan: ondoren San Nikolas kalean eta orain Juan de Labordon. Bere aurretik Pili jaio zen. Egun batean Mari Karmen Sagarzazu arrantzale alabarekin egingo du topo eta elkar lanean beste hiru hondarribiar prestu fabrikatuko dituzte: Nerea, Patxi eta Maite. Juan Mari berek aipatuko dizkigu historia honen iturburuak:

J.M.: Nere aurrekoak lehorrekoak ziren. Aitaren aldeko aitona arabarra zen, Baños de Ebrokoa; amona, berriz, Burgoskoa. Amaren aita Iruñeko eta ama Etxarri-Aranazekoa. Gurasoak Hernanin jaio ziren biak. Hernanitik, Irunen hiru urte bizi eta gero, honara etorri ziren.

H: Zenbakiak jorratzen laila dugu-nez, non ikasi dituen geroak galde-tzen dlogu.

J.M.: Gehienak bezala, Hijas de la Cruzen hasi nintzen eta hortik Biteria pasa nintzen; gero, hamaika urte edo nituela, Lasalleko fraileak Ama Guadalupekorat etorri zirenean, hara pasa ginen, hamalau urte bete arte. Hortik aterata, Banco de Vizcaya-n sartu nintzen zuzenean. Bankuan hamar urte edo igaro ondoren Kajara pasa nintzen, Munizipalera.

□ KERIZPE ETA KLINK

H: Beraz, hori izan zenuen lehenengo lanbidea...

J.M.: Ez. Nere lemixiko lana aitarena izan zen, pelukeroa. Aita Kale Nagusiko pelukeroa zen eta ni ere horretan hasi nintzen hamabi urteetan: ilea moztu, bizarra kendu e.a. Ezkundu arte. Lehengo ohitura horrela zen, harotzaren semeak harotza izan behar zuten. Polita zen, gustatzen zitzaidan... Igande goizean seietaiko mezara joan, hura bukatu eta pelukeriara, ordu biak arte. Baserritarrek eta arrantzaleak igandeetan joaten ziren.

H: Hasieran genion bezala, Juan Mari betidanik izan dugu hamaika saltsatan murgildua. Arrazola galdetzen dloguean ez daki garblegi erantzuten

bere nortasun hori saskitik duen ala aritzeak kutsatu dion. Txikitán, Kerizpen hasi omen zen dena...

J.M.: Orduko gazte gehienak pasa ginen Kerizpetik. Era askotako ekintzak antolatzen genituen: kirola, futboleko plaiaroak, pilota txapelketak, hitzaldiak... Antzerki taldea ere bagenuen. Hasieran gizonezkoak bakarrik, gero mixtoak... baina distantziekin, Antzerki asko egiten genuen Kerizpen. Guk bukatu-takoan ez zen beste talderik sortu. Gurekin jenerazio bat bukatu zela esango nuke, ondoko gazteak beste estilo batekoak etorri ziren. Errege kabalagata ere antolatzen genuen.

H: Klink...

J.M.: 1970ean lagun dozena batek sortu genuen Klink. Lehen hiru urteetan presidente izan nintzen eta gero beste zazpi-zortzi urtez direktibo, gauzak finkatu bitartean, ekipo jator batekin. Helburua, galdutako ekintza batzuk berpiztea zen: plaiaroak, kabalagata, fanfarrea, pintura lehiaketak e.a. Gauza berriak ere egin genituen: txirindaz criterium internazionalak eta Euskal herriko jirak, multoientzako pilota eskola (oraingoaren hazia) eta abar. Arreta berezia eskaintzen genien haurrei eta hirugarren adinekoek: zaharren egoitzetara bisitaldiak egin eta haur hospital-etara, San Juan de Dios-era, ere bai, Donostian, Bilbon edo Gijonen. Herriar ezagun batzuk ere omenaldiak egin genizkien, Bien-venidarena daukat gogoan...

H: Euskara ere irakasten zenuen Klink-en...

J.M.: Iai-ia soziedade sortu zenetik eman ziren euskarazko klaseak, oraintsu arte; bai haurrentzat, bai helduentzat. Lupe Artola izan zen lehenengo irakaslea, D. Martin eta Ani Iturbe ere aritu ziren. Orain badaude beste erakunde batzuk herria euskalduntzeko.



Klink Fanfarrea. Juan Mari, bonboarekin. (1972)

H: Juan Mariren etxeko bakoitik San Gabriel erresidentzia ikusten da eta hirugarren adinekoak alpatu dituzenez haririk tiratzen diogu...

J.M.: Horretan ere mutikotan hasi nintzen. Hamalau urte nituela, Aste Santua pasata eskolatik atera eta tonbola antolatuzera joaten ginen. Oroitzen naiz nolako boletoko ziren, jostorratzak zituzten. Asko aldatu da egoera. Ordutako bai asiloa! Haiek ziren gelak! Hamabi edo hamalau ohe geletan... euria egiten bazuen, itoteak. Hor dago sor Luzia eta oraindik oroitzen da, eguerdia lirtsi eta janariak, ez esperuan, zer bazkaldu behar zuten jakin gabe. Oraingo residentzia beste gauza bat da.

□ ARRAUN ELKARTEA

H: Eta nola sartu zinen edo zintuzten arraunaren munduan?

J.M.: Arrauna beti gustatu izan zait; hor nola sartu nintzen, berriz, ez naiz gehiegi oroitzen. Tesorororen bat beharko zutelako edo... Herriko estropadak antolatzen oso sartua ibili naiz beti, lehorreko gauzetan, papekak egiten, propaganda, e.a. Urte batzuetan estropadak ikustea kobratu egiten zen, eta hura dena ez zen oso erraza antolatzen eta kontrolatzen.

Zaletasuna aspaldian sortu zen nere baitan nolako giraz entrentatzen ziren ikusita, nola sufritzen zuten... Orain, hamakala hilabete pasatzen dituzte arraunean; lehen hilabete gutxiago izaten ziren, gogorragoak ordea. Gehienek dibisioak eta forrunkulak izaten zituzten. Holako kurak ere egiten zituzten arraunketa ez uzteko! Oso gogorra zen, gogorra. Gehienak baserriarrak ziren: Kaike, Ullurta-Azpi, Geberalarre, Blas Etxaide, Margallo, Zaotza.

H: Denbora igaro ahal gaizak aldatu egin dira...

J.M.: Momentu diferentek eta gora-behera asko izan dira Clubean. Hasi ginen estropada guztiak irabazi genituen, 65, 66, 67 eta 68an Kontxako bandera ekarri genuen. Lau urte segiduan titulu guztiak irabazi genituen, Espainiako txapelketa bakarrik falta zen. Gero, lau edo bost urte horiek igarito eta jaisten hasi zen.

H: Zer dela eta?

J.M.: Zikloak izaten dira. Hondarribia lau urtetan ibili zen buru, gero beste batzuk etorri ziren, Kaiku, Zumai, San Juan, San Pedro... Lau-bost urteko zikloak egoten dira eta gero jaxki egiten dira. Denbora behar da taldea osatzeko, hamazazpi lagun behar dituzu, bereziak; orain gehiago...

H: Zertan dira Clubaren instalazioak?

J.M.: Udalak bere presupuestotan berrogeitamabost milioi aprobata diti, uste dut, obra bukatzeko. Azken berrien arabera Diputazioaren baimenaren zain dago. Hiltze emana dago baina tramiteak falta dira oraindik. Obra hasi ezkerro, sei hilabetetan bukatu daiteke. Behar-beharrezkoa da. Momentuan duguna garaje bat da eta marea igotzean ura sartzen da, gainera ez du leihorik eta ez ezer. Proiektuan foso bat dago eta fosoa garrantzi handikoa da. Neguan ere eguraldi txarra egiten badu fosoa egin dezakezu arraunean. Haurrek ere, ikasi gabe uretara bota beha-



Hendaia, Lehen Ikurrria trenatzen. - Zutik ezkerretik: Fermín Altuna, Lexo, Sagarzazu, Miguel Bernedo, J.M. Beñito, Esteban Olazola (patroia) eta Altuna. - Makurtuta: Kamiyo, Otxote, Larretxea eta Txapartegi.

rrean, hor egin ditzakete lehenengo pausok. Moldatzen gara, kanalean arriskurik gabe ibiltzen direlako, baina beti monitorea behar duzu gainean. Gimnasia egiteko ere Biteri eskolara joan behar izaten du. Biblioteka edo ikasgela antzeko zerbatu ere jarri nahi genuke azterketak eta datozenean bertan ikasteko posibilitadeara izan dezaten, alai bada lagunduko dien maisu batekin. Hori da gure asmoa.

H: Sponsor berria hartu duzue aurtengoa, Euskal Air...

J.M.: Udalgandik, Kirol Kontseiluaren bidez, laguntza polita hartzen dugu. Eskerrak eman behar dizkiegu aurreko sponsorrei ere, Super BM eta IFARI. Bi urtez ederki ibili gara beudekin, baina kontratua bukatu denez orain beste firma bat hartu behar genuen eta Euskal Air-en aukera hau egokitu da.

H: Propaganda handia egiten al du trainera batek?

J.M.: Estropadetan lehenengo edo bigarren ibiltzen bazara, asko batenetaz dugu periodikua. Guk joan den urtean laugarren bukatu genuen: San Pedro, San Juan, Zierbana eta gu. Inportantea da hori. Nahiko periodikua hartu genuen eta telebista ere dextente.

H: Arraun Elkarteak zerbatu erosi behar denean Juan Marirekin kontatu behar omen da. Gastu handiak izaten al dira?

J.M.: Lujorik behintzat ez daukagu. Estropada batera joaten garenean, Santanderra adibidez, bueltan bokadilo bat prestatzen dugu bakoitzari besterik ez, fruta eta ura, ur-asko edaten bait dute... Urtean hiru aldiz, ordea, medikuarengana joaten dira rekonozimintua egitera eta analisiak ere egin behar izaten dituzte. "Deporte de fondo" denez, burni asko erretzen dute eta hori zaindu beharra dago. Medikuen kontsulta eta analisekin milioitik gora gastatzen da. Autobusa eta bidaietarako beste milioi eta piko egoten da. Beste Club batzuek urtero trainera berria estrenatzen dute; guk 87an erosi genuen gurea, duela lau

urte. Eta banku mobilean estropada bereziak ditugunean beste bat eskatzen diogu materialari. Bederatzi milioi pasiak da gure presuestua. Eta hori atera egin behar duzu.

H: Nola ibiliko zaigu aurtengoa Ama Guadalupekoa?

J.M.: Planteamenduak ezin dituzu urtebeterako bakarrik egin, luzaorako egin behar dira eta nire ustez badaramatzagu urte batzuek gauzak ondo egingez. Aurtengo asmoa hasieratik trainera indartzea da. Aurreko urteetan banku mobil eta trainerarekin batera ibili izan gara trainera osatu arte, eta hori zortzi bat lagun izaten genituen prest, aurtengoa, ordea, hamazazpi lagun behar ditugu oraintxe, maiatzean; hogeiasei lagunekin hasten zara azkenean hamazazpi-hogeiarekin gelditzeko. Oso fin an dira lanean, gogo handiarekin eta San Juan eta San Pedrokit oso hurbil ibiltzea espero dugu. Hori lortzen badugu, nahiko urrats handia izango da aurtengoz. Ea suertea dugun eta kale onak ere tokatzen zaizkigun...

H: Blagan jarraitzen dugu iraganeko eta etorkizuneko hamakala galren inguruan. Mikel Pregoren Istripu tamalgarrira alpatzen dugu. Halaberhargaila izan zen halze zakarrak alatu hura harrotzea. Zorionez horrelako Istripuak gutxiatan gertatzen omen dira arraunean; kirola gogorra da arruana, hala ere ez omen dago beste kirolarik honen Istripu gutxi izango duenik. Hogeigun barru udal hauteskundeak direla eta Ezker Abertzale Batua eragin dila zinegotzi izan zen garaia gogoratzeko. Konten dago esperientzia hartaz nahiz eta bidea beti erraza ez den. Musikerio frustratua dela aitortzen dugu. Bere aitak flauta jotzen zuen Hondarribiko bandan eta berak ere musika ikasi zuen nahikoa baina instrumentua hartzerakoan utzi egin zuen. Klarineteta da bere instrumentua eta orain ez du ikasteko astirik, baina egingo omen du hori ere.

J.A. Letamendia

HONDAKINAK BIRZIKLATZEA

Hirietan gero eta hondakin gehiago pila-tzen da, urteik urtera batz bestea ehuneko 2 edo 3 gehitzen da. Bestalde hondakinak ar-tean gero eta gai ustelgaiz gehiago dago, ha-la nola papera, kartoia, plastikoa eta beira.

Euskal Herrian zaborren % 80 "Zaborte-gi kontrolatuetara" botatzen da, baina hau-xe da hain zuzen metodorik gaitzetsienetako bat, ingurugiroarentzako arriskugarria izateaz gain herriarrei eragozpenak sortzen diz-kielako.

Horregatik zaborrak desagiteko soluziorik egokiena BIRZIKLA-TZEA da. Birziklatzean hondakinak osagai guz-tiak berreskuratzen dira, herriko zaborrak gutxi-tuz, ingurunea babestuz eta energia eta baliabide naturalasko aurreztuz.

Hondakinak osa-gaiak berreskuratze-ko oztoponik haundienetako bat, materiale horien sailkapenerako metodo-rik eza da, horregatik hondakinak etxearen bertan sailkatzeak asko lagunduko luke. Siste-ma horrek herriarren lankidetzak eskatzen du, baina horrela lehen-gaiak garbi egonez erre-zago birziklatuko litza-teke.

BEIRA BILKETA ORAIN ERREZAGOA DA

Zaborrak birziklatzea, naturari kalterik ez egiteko modu egokia da. Beira birziklatzeko lehen egitarauak 1970 inguruan azaldu ziren hirietan, Espainian 1982an hasi ziren kale-etan lehenengo edukinontziak jartzen. Ordu-tik hona beira-bilketa gehituz joan da eta parte hartzen duten Udalak gehituz joan diren neu-rrian bilketarako lekuak ere ugaltu egin dira.

Hondarrbian beira-bilketari ekin zitzaio-nean 4 leku bakarrik ziren horretarako izen-datuak eta gaurregun 12 lekutan daude Euskal Herrian beira-erakundeak arduratzen den VIDRALA S.A. izeneko enpresak jarri-

tako ontzi bereziak.

"ANFEVI, Asociación Nacional de Em-presas de Fabricación Automática de enva-ses de vidrio" izenekoak emandako datuen arabera, urtutzen den tonelada bakoitzeko 1.200 kilo lehen-gai eta 130 kilo petroleo aurrezten dira. Horretaz gainera, erabiltako beira urtutzea merkeagoa da, ez du hainbes-teko temperaturarik behar eta kutsadura gu-txiago sortzen du.



ORAIN ERREZAGO !

Aipatutakoek gainera Udalaarentzako be-tse abantaila bat ere badu beira erreziklatze-ak, zabor-bilketa, garraioa eta desegipenaren kostoa gutxitu egiten bait du.

Hasieran, proiektu honi ekin zitzaionean, beira txuria eta berdea aparte biltzen ziren ho-rretarako bi edukinontzi jartzen ziren elkarren ondoan, bata txurilarentzat eta bestea berde-arentzat. Beira txuria, berdea baino askoz gu-txiago biltzen zela ikusirik, (Hondarrbian 89an beira txuria 14.434 kilo eta berdea 41.092 ki-lo), enpresek bi koloreak nahasiak biltzea erabaki zuten, horrela bata bestearengandik bereizteaz beurek arduratuko bait dira erre-ziklatu behar duten lekuan.

Udaltzean ari garen Ekokontseilari-ek beira biltzeko edukinontziak non jarri auko-ratzen lagundu dugu, horretarako lekunik egokienak taberna edo establezimenduan in-guruak direla kontutan hartuz. Horrela bada hemendik aurrera ondoren aipatzen diren le-kuetan kokatuko dira:

■ San Pedro Kalean (Rafael Tabernaren aurrean)

■ San Pedro Kalean (Itxaropena Tabernaren aurrean)

■ Guadalupeko Ama (Supermerkatuaren ondoan)

■ Itsasargi Kalean (Aquarium jatetxearen aurrean)

■ Matxin de Arzu kalean (Hortzadar Gara-gardetegia ondoan)

■ Matxin de Arzu Kalean (Itsas Etxearen ondoan)

■ Puntalean

■ Mendelu Kalean ("Club Venus" en ondoan)

■ Zubieta Kalean

■ Minasoreta Kalean (Alameda Tabernaren ondoan)

■ Amuten (Manolo Tabernaren ondoan)

■ Donostia kalean (Sokoa Merkataldegia-ren ondoan)

Beirakoz ontziak ja-sotzeaz arduratzen den Enpresak, egoera txarrean dauden eduki-

nonitziak kendu eta horien ordez berriak jar-teari ekin dio, gure udalerrian itxurakaitu gabe ahalik eta zerbitzurik egokiena eskaini nahi duelako.

Dena dela Hondarribiarren erantzuna na-hiko ona izan da eta 1990 urtean 99.786 kilo bildu dira.

Beirabilketarako lekua ugaltze honek her-ritarrei gauzak errezen dizkionez, beira ge-hiago bilduko dugulaokan gaude. Hori lortzea herriar guztien esku dago.

Mari Karmen Oses

HONDARRIBIKO UDALEKO
EKO-KONTSEILARIA

BIDASOAKO ARRAINAK ETA MARISKOAK (V)

□ POTORROAK □

Potorroa, Bidasoko hondartzetatik bi balaunditan ia la desagertu den moluskuu du. Garai batean orain baino ugariago izaten omen zen, nire aitak dioenez bere gaztaroan zenbait hondartzetan oinpean horren txiriak nabaritzen bait ziren. Nik azkena bidutakoak, urte asko ez dela, Hendaiaiko "Playa de Invierno" izeneko lekuan hartzeman niteuen, gaurregun Sokoburu Urbanizazioak mehatxatutako leku lasai horretan hain zuzen.

Nik ez dakit almeja bila arretaz saiateren diren mariskarinen batek horrelakoren bat aurkitu izango duen, ez legoke gaizki hala baltiz, estuari honetatik desagertutako espezieen zerrendan sartu gabe birreskuratzeko itxaropena emango bait liguke.

Zientifikoki "Cardium edule" izeneko molusku hau bibalboa da, bere txiriak erdiborobilak dira eta 3-4 zentimetrotako diametroa du, zurixka da, baina marroi-horixkaz zikindutako artesiak ditu. Bere gorputz grisa, bi sifoi horiz eta hanka batez osatuta dago eta hanka horretaz baliatzen da hondarrean zuloa egiteko eta igerika edo saltoka leku batekin bestera mugitzeko.



Marea jeistean aurki liteke, amasa hartzeko bi xulo uzten dituelako. Zenbaitetan bere buruaren salatari bihurtzen da, etsaien bat hurbiltzen ari zaiola somatuta, bapatean baitak itxi eta hondar gainean ur pixka bat uzten bait du.

Jorge Victor Sueiro, duela gutxi hildako

kazetari galiziarrek, gure hiria hain maite zutenak, bere "Manual del Marisco" izeneko liburuan zera dio, potorroa afrodisiakoa dela bere izena eta guzti, hori jaten dutenen maitasun-zaina indartzen duelako. Horretaz gainera galizieraz ematen zizkion zenbait izenek "Crica", "Bereberchina", "Caratella" eta horrelakoek emakumearen zenbait zona erogorekin zerikusia dute.

Euskaraz ere berdin gertatzen da, almeja, kokina eta beste zenbait deitzeko erabiltzen den "txirla" izenaz gainera "potorroa" deitzen bait diogu, emakumearen gorputzaren alipamena eginez.

Molusku hau prestatzeko modu asko badaude ere, formula praktikatuak alde batera utzita oso goxoak geratzen dira lurrunetan ireki, beuren saldaiz busti eta limoi tanta batzuz botata, hondarra kentzeko zapi batean igarota noski. Arrozarekin edo beste inolabait jarri nahi badira, kontutan eduki behar da sutan oso denbora gutxi eduki behar direla, moluskuak luzaro egosiz gero zaildu egiten bait dira.

J.J. Lapitz

EUSKAL-AIR, AMA GUADALUPEKOAREN SPONSOR BERRIA

Apirilaren 21eko eguerdian hitzarmen bat sinatu zuten Hondarribiko Arrain Elkarteak eta Euskal Air enpresak, Zuloaga etxeko aretoan, kazetarien aurrean. Mahaiburuan herriko Alkatea, Mikel Bernedo Clubeko lehendakaria, Jesus Muzás eta Iñaki Zabala Euskal Airen izenean, eta Kontxita Portu eta Mikel Tobar, kultura eta kirolletako zinegotziak ziren.

Alkateak, hara bildu ziren arduradun eta berriemalerei ongielortia eman ondoren, arraunak Hondarribian betidanik dituen sustraiak gogoratu zituen, hain aspaldi ez delarik eguneroko ogia irabazteko, gaur egun kirol jardunean. Bukatzeko eskerrak eman zizkion Euskal Air-ri herriko trainerari laguntzeagatik.

Ondoren Mikel Bernedok Arrain Elkartearen helburua ez dela garaipenak lortzea bakarrik esan zuen, gaztediari kirol prestakuntza eta giza hezkuntza eskaintzea balizik. Bere itxaropena aldarrikatu zuen akordioaren sinadura zela eta, Udalarekiko harremanak ezin hobeak direlarik, luzaroko plangintza egin ahal izateko sponsor baten premia dutelako. Hegazkin zelaia eta Clubaren hurbiltasun fisikoa gogoratuta, trainera eta Euskal Air-en irudiak lotuz, Kontxan barrena hegazkina bezala hegaka abiatzea opa zion Ama Guadalupekoari.



Jesus Muzasek beren poza azaldu zuen arraunaren familian Hondarribiko Elkartearen eskutik sartzen zirela eta, interes ekonomikoek gainera enpresek herriaren eta gizartearen sentimenduen partaide izan behar dutela azpimarratuz.

Bai Bernedok eta bai Muzas jaunak gertatu berria gurean Koxtapeko Mikel Pregonen istripu heriotza aipatu eta deitoratu zuten.

Aperitifa arin batekin bukatu zen ekitaldia.

ANTZERKI LABURREN OLINPIADA (PROPOSAMENA)

Hizkuntzaren osasunak aldian aldiko gaitz eta aje berexiak dituenek gero sendagaiak eta bitaminak ere halakoak behar izaten ditu aldiro. Adituek (eta ez horren adituek) dituenek, euskararen egungo sintomatologik mintzamenaren salatzen digu ahuleria.

Ez hain aspaldiko euskaldunen gabezia analfabetismoa omen zen. Euskaldun haiek parra-parra egiten zizuten (eta dizute) euskaraz edozein gai eta sentimendu eragozpenik gabe adieraziz mintzoa eta amasa batean zerzikielarik. Analfabetoak omen ziren, ordea, eskolan ez irakurtzen ez idazten irakatsi ez zietenelako, edota irakatsi bai bainan erdara baituan soilki.

Egungo gaitza, aldiz, alderantzizkoa omen dugu. Belaunaldi berriko euskaldun askok ba omen dakite h non ezarri, baita ekuaizio, inekuaio eta buruketa bihurriak euskaraz zaluz ebazten (ez, noski, ibasteri) ere, baina hala eta guztiz aski motz dabilzikizu (gabilzikizu) poz-haserrearek euskaraz adierazi edota bixte arunt bat kontatzeko garaian. Nola bait, premiazoa genuen ikasgelako euskaraz akademiko-aseptikoa lortu dugu baina bitartean bizitzakoa indargabetzen utzi dugu.

Ez da gure asmoa horretara eraman gaituzten arrazoi ugariak aztertzea. Sendagariak ere hamaika dirateke baina orain horietako bat baizik ez dugu gogoratu proposatuko lerro hauetan.

Hondarribian (eta kanpoan) hizkuntz lehiaketa gehienak idatzizkoak izaten dira: izkribuz ondutako olerki, nobela, antzerki eta ipuinak aurkeztzen eta saritzen dira. Salbuespena bertsoari (bertso-paperak ez direnean).

Hori dena egoki bezain beharrezkoagoa da, baina, edonork dakienek, poeta edo idazlea edukitzeko lehen baldintza, euskalduna edukitzea da, eguneroko hizkuntza segurtasunaz menderatzen duen hiztun aruntza, goragoko maila horietan hizkuntzarekin malabarismoak egiteko gai izango bada. Kristaba errueda aukilan ezindurik daukagula, bapatean eta derrepente, bitarteko gimnasiarik gabe, trapezista bihurtu nahi



"Virguliñe" Taldea.

izaten dugu, hizketan jakin gabe bertsoari edo olerkari bilakatu alegia.

Horregatik, goi mailako saio honiek ahoz gabe eta horientzako lurra ongarritzeko ere, lehiaketa edo jardun apalagoa proposatzea ausartzen naiz: hizketa lehiaketak antolatzea, antzerki laburren sariketak. Bakar-kako esatariek ipuinak, bakarriketak edo txistek kontatuko lituzkete; bi lagunetik gorra izanez gero elkarriketa genduke, antzerkia, beraz. Sail eta sari diferentek izan litezke. Ipuin idatzik askok ez dituzte irakurtzen, honek, aldiz, erdi espektakulu itxura lukeenez, irakur zale ez den ikus-entzulego bat bereganazake.

Badirudi Hondarribian taldeka mugitzeak ez duela trauma handiegirik sortzen, Herri Olinpiadan, parodietan, inauterietako konpartidak, abesbatzak, gaitorikanta edo olerteroko lehiaketetan ikusten denez. Antzerkian bertan ere hortxe dugu Virguliñeko lagunaren eredu imitagarria; bere kabuz sortutako talde honek antzerkia egiteko ez dela baliabide handirik behar erakutsi digu, gogoia, zalelasun eta trebetasun piska bat izanez gero. Eta primeran pasatzen dutela esango nuke.

Mini-antzerki saio hauek 3-10 minutuko

sketch laburrak lirateke, bizpahiru lagunek antzeztuak. Hau ez dela ametsa aski ongi frogatu zen Donostiako Victoria Eugeniako "Jaialdi Mundiala"-n, Aberri Egun gauez ETBk ere eskaini zigan hartan.

Obrak, aldez aurretik ongi prestatuak, erdi prestatuak edota bapatekoak (bertsolaritzan bezala, baina prosa prosaikoaz) lirateke.

Bapateko saioak egitekotan, gaiak (egoe-rak, situazioak, gidol hasikinak) momentu berarean edota hamar minutu lehenago eman litezke; erdi prestatuak izatez geroz, ordubeste lehenago edo bezperan, taldeak zertxobait landu dezan.

Taldea asko aurkeztuz gero (nahiago nuke horrela balitz) kanporaketaren bat ere egin liteke. Kanporaketa fase bakoitzean obra diferentea aurkeztu behar lukete partaideek, horretarako behar den epea utziz. Dena den, bost minutu betetzeko beste horrenbeste orrialde beretzeara ez da gehiegizko lana egungo gaitze (haur edo zahar) irudimentsuentzat.

Aldez aurretik prestatuak izanez gero, epeai-mahaiakoe bi gauza neurtu litzakete: testu idatzia batetik eta antzezpenera bestetik (kan-ta lehiaketetan ere konposizio eta interpretazio sariak berexik jogan ohi dira). Ez da nahitaezkoa ere lehiaketa eran egitea. Kirolean, partehartze omen du axola, ez irabazteak. Hemen ere lehiaketa gabeko sariak, lagun-tzak alegia, eman litezke, inor irabazte gaitzaile gertatu gabe.

Gimnasia berri honek mintzamena indartuko leke partaideengan eta hori da funtsean bilatzen duguna, baina bestela ere bide aproposa gerta liteke agian luzarora telebista edo zinemarako artista eta gidogileak sortzeko ere. Futbolari internazional batzuk ez ziren sortuko mutikotan herriko plaiaretan jokatzaren hasi ez balira.

Horra, bada, proposamena. Udal Euskaraz Kontseiluak ba omen du diru pixar bat horretarako jarria. Eragileak behar dira orain, antolatzaileak. Ea nor animatzen den... Zergatik ez Gabonetan ikasleria oportunitate denean eta Olinpiadaren buruan?

J.A. Letamendia



"Virguliñe" Taldea Ama Guadalupekoan.

LIBURUAK - LIBURUAK - LIBURUAK - LIBURUAK - LIBURUAK - LIBURUAK - LIBURUAK

"KLAUDIO OTAEGI OLERKARIA (1836-1890)"

Klaudio Otaegi
olerkaria

(1836-1890)

Literatura

Presentatzailea
Patri Urkizu
Xabier Azurmendi

ETOR

Joan den urtean, heriotzaren ehunurte-burua zela eta maiz gogoratu genuen bezala, Klaudio Otaegi Zegaman jaio eta Hondarrribian hil zen, bizitza gehiena hemengo maisu zela igaro ondoren. Hondarrribian joan den azaroan eggin genien omenaldia. Zegaman, beriz, aurten goiarraren 14ean. Zegamako omenaldian, beste ekintza batzuen artean, Etor editorialak Otaegiren olerkier ar-

gitaratu berri duen liburuak aurkeztu zuten: **Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890)**.

Liburuaren azaletik azkenetaz aurrera, biziaren diru argitalpen hau prestatu duten lagunak: Patri Urkizu lezoarra eta Xabier Azurmendi zegamarra. Liburu gehiena Klaudio Otaegiren olerkier betetzen dute eta aurretik Urkizu eta Azurmendiren aurkezpenak datoz. Urkizuren aitzin-solasean Hondarrribian azaroan eman zuen hitzaldia dugu, baina oraingoan, irakurtzekoa denez, hitzaldietan alpatu ohi ez diren iturburuen ohar baliorez hornituta. Beraz, Hondarrribiko mintzaldia entzutenik izan ez zutenek edota entzunda oso rik eduki nahi dutenak aukera ezin hobea dute liburu honekin. Gabonetako "Hondarrribia"n eman genuen horren laburpena.

Azurmendiren aitzin-solasa olerkiaz baino areago Otaegiren bizitzak eta nortasunaz mintzo zaigu. Datu batzuk Zegamako parrokiaren eta udaltzaren bildurak dira eta bestetik aski luze traskribatzen digu Gipuzkoako Al-dundiko artiborren gordetzen den eta D.Klaudio berak Hondarrribian 1879an idatzi zuen bere euskal lanen zerrenda. Horretan ageri denez Otaegik ezkon-anaia edo zuen Bonaparte Printzearen dialektologiako kerketan eskaini zion laguntza ezjakin batzuk uste genuen baino askoz sakonagoa eta iraunkorragoa izan zen, eta itzulpen lan ugariak egiteaz gain 1866ean Aezkoa, Zaraitzu, Erronkario eta "Nafarroko beste ibar asko-

tara"n lagundu zion bertako "euskara ikastetara". Geroago ere beste bidaiak batzuk ere egiten zituen Nafarroara Printzearen aginduz lanak jaso edo egiaztatzea. Azurmendik esaten digunez, zegamarra izan arren, On Klaudioi karlista ez baina liberal kutsua omen dario, garai hartako hainbat donostiar euskaltzale-ri bezala.

Olerkien sailkapena dela eta, Campioneen bost ataletan egiten zuena alde batera utzita, beste bat proposatzen digu Urkizuk bere ikerketan, zortzikoa, eta horrelaxe taxutua dator liburuak: I Erlijioa, II Euskara eta Euskal herria, III Oroiymenezkoak, IV Iri eta ziri, V Ipui eta alegi, VI Orotarikoa, VII Itzulpenak, VIII Musika letrak. 94 poema guztira, 7.702 bertso-lerro.

Otaegiri buruzko bibliografia ere ugaria dakar liburuak Jon Bilbaoenetik hartua.

Hona, bada, Hondarrribian guztion etxean egon behar duen liburuak. Udakal sorta bat hartuko duela espero dugu herriko ikastetxe guztietan zabaltzeko. Gogoakio ikasketetan ari direnek ere badute zer-aztertutik orain arte ez genuen bilduma honetan.

Zalatzarik gabe, hauxe da bere heriotzaren ehunurtearen urtemugan Otaegiri eskaini zekioken omenaldirik onena.

J.A.L.

LIBURUAK - LIBURUAK - LIBURUAK - LIBURUAK - LIBURUAK - LIBURUAK - LIBURUAK

"KAMIÑAZPI"ren liburu berria: "NEURE IDAZLAN BILDUMA"

Etxaburu'tar Jose Mari
"KAMIÑAZPI"Neure Idazlan
Bilduma

Duela urtebete pasatuxea Etxaburu'tar Jose Marirekin egindako elkarrizketa argitaratu genuen "Hondarrribia"n. Hartan esaten zigunez hiru liburu zituen ordurako argitaratuak: **Txolintxu** ipuin bilduma, gure artean hain ezaguna dugun **Ondarrribiko Kondal-ara**, eta biografia tankerako **Lau urteko neu-**

re ibillerak gerra garaiko eta ondoko estuasuak, iparraldean batez ere, kontatzen zizkigularik. Liburuak agertu aurretik, ordea, hango eta hemengo artikuluetatik ezagutzen genuen "Kamiñazpi"ren luma ezinezgona. Aldizkarietako artikuluetatik, ordea, sakabanatuta galdituz direnez ezin izaten dira batean eduki eta irakurri idazlearen lanaz orokorrean gozatzeko. Horren pena eta gogoa zuen Kamiñazpi duela orain urtebete hiltz egiten genuen: bere artikuluen bilduma argitaratzeara. Eta horra non lehengo egunean telefonoa jo eta liburu inprimatua dagoela esaten digun.

Dakizuenez, azken jaietan, Alarde egunean bertan, emaztea, Juanita Igiñiz, hil zitzaion eta berari eskaintzen dio liburuak. Baruko orrialdeetan honela egiten dio eskaintza: "Oraindu it jatan neure andra on-onari, Juanita'ri eskaintzen dautsat liburu au. Ondarrribia'n 1991'ko lehengo ilean". Eta liburuaren azalean biak, elkarren ondoan, agertzen dira Gernikako Arborearen aurrean duela gutxi ateralako argazki batean. Horixe da Jose Mari Juanitari eraiki dien esker-on eta maitasun-berko monumentu: orotarri betierekoak. Berak bere saletetik ordaindu du argitalpena eta lagun euskaltzaleen artean ari da zabaltzen. Ez omen du liburu dendetan salgai jarriko, horregatik, liburuak nahi duenak beragana jo behar du zuzenean.

319 orrialdetako liburu honetan Zarauz-ko Itxaropena-ren irakurla lana benetan txukuna izan da aipatu berri dugun azaletik hasita. 126 artikuluetatik 9 ataletan sailkatuta daude: *Ereñoño alderdilik ikusiak*, *Beltzale usaiñekoak*, *Euskereak*, *Aberrien arteko politikeak*, *Euskal folklorea*, *Gizarte aldia*, *Aran-tzea*, *Danetik nasteen*, eta *Neure erriko kontutxuak*. Aipatuegatik antz emango zenioenez, lanak bizkaieraz idatzitako daude. Hondarrribiar eginek ere Jose Mari'k ez baitu behinere ukatu bere jatorri ondarrutarra.

Hogei urte bete baino lehen hasi zen euskaraz idazten EKINera Ondarruko berriak bidaliz. Gerra osteko isildakio luzearen ondoren 1957an hartu zuen berriro luma eta aldizkari askotan kolaboratu zuen, besteak beste, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Yakin*, *Karmel*, *El Diario Vasco*, eta batez ere *Agur* eta *Goiz Argi*-n. Aldizkari haiek mantendu zuten bizirik euskaltzaleasunaren zuzen denbora gaiztoxeagoetan. Liburu honek lagunduko digu nolakoak ziren garai haiekako arazoak, azukiak eta intziaz ezagutzen. Ezinbestekoak gaurkoak hobeto ulertzeko, batzuek gainera bizi-bizirik dirautelarik gaur egun ere. Funtzionari-moak txepeldu gaitzaketen aldi hauetan txerto pizgarri begiku garai haiekako militan-tziaren ereduak.

J.A.L.

1991.eko malatzaren 26ko

UDAL HAUTESKUNDEETARAKO ZERRENDAK

P.S.E.-P.S.O.E.

1. Ramón Laborda Larzabal.
2. Juan José Sánchez Zubialde.
3. Carmen Maura Amunategui.
4. Alfonso Moreno-Arrones Feijoo.
5. Tomás Bachiller Gutiérrez.
6. Lorenzo Alagón Peinado.
7. M^a Jesús Garin Esnaola.
8. José Luis Noain Cendoya.
9. Aranzazu Aristondo Aramburu.
10. Pedro José Olazabal Ortiz.
11. Jesús Corral Hernández.
12. Francisco Juan de los Reyes Rivera.
13. Begoña Arroyo Solorzano.
14. Antonio Martínez Fernández.
15. Josefa Pérez Rey.
16. José M^a García Oveas.
17. Josefa Orto Boada.

Ordezkoak:

1. Antonio Verde Recuerdo.
2. Angel Bartolomé Soria.
3. Emilio Macarro Iglesias.

Partido Popular

1. Francisco Javier Urbistondo Pardos.
2. Ana M^a de la Sierra Amundarain.
3. Carmen Madinabeitia Fernández.
4. Ignacio Joaquín Aparicio Carol.
5. Cristina Henríquez de Luna Treviño.
6. Abelardo Gómez Martínez.
7. Josefa Armas Pablo.
8. Julia Bote Sánchez.
9. Luis Álvarez Espuny.
10. M^a Dolores Reyes Olea.
11. José Vicente Álvarez Espuny.
12. Rafael Pérez Rodríguez.
13. Ana M^a Tapia Ruano Rodríguez.
14. Fernando Travesero Mayor.
15. Rosa Luz Tellez Martínez.
16. Félix Carlos Bonilla del Olmo.
17. Manuela Romero Crovetto.

Ordezkoak:

1. Hortensia Reviriego Fernández.
2. Jesús Bermejo de Frutos.
3. Sara M^a García de Miguel.

Euskadiko Ezkerra

1. Alberto Martín Lasa Ansala.
2. Julián Rodríguez Trenado.
3. Agurtzane Guereñu Miranda.
4. Juan Pablo Landa Zapirain.
5. Agustín Tife Laruscain.
6. Iñaki Arregi Mendizabal.
7. Antxon Loinaz Zarate.
8. Ignacio Díaz Casillas.
9. Jesús Valencia San Martín.
10. Jon Iñaki Etxebeste Redondo.
11. Lupe Iza Lekuona.
12. Jose Juan Bereau Elizalde.
13. Jose De Domingo Acinas.
14. M^a Carmen Murua Olaizola.
15. Ignacio Izeta Ibarguren.
16. Jose Luis Barkaitzegi Zugasti.
17. Aranzazu Arruti Iza.

Ordezkoak:

1. Victor Aldabe Nuin.
2. Jesús M^a Font Martí.
3. Etxelino Fernández Suarez.

Herri Batasuna

1. Xabier Airre Artola.
2. Anjel Alkain Etxeberria.
3. Senen Larzabal Etxarte.
4. Loli García Goikoetxea.
5. Tomás Elgorriaga Kunze.
6. Enrike Bengoetxea Oiarbide.
7. Miren Alkorta Barrena.
8. Mikel Kintana García.
9. Pako Agirre Iridoi.
10. Patxi Lekuona Ilundain «Etxetxuri».
11. Marga Iridoi Agirre.
12. Isidro Agirre Otegi.
13. Emilio Sagarzazu Mutuberria «Tanke».
14. Imanol Arzuaga Sarraeta «Kima».
15. Idoia Bengoetxea Goikoetxea.
16. Joxerra Enparan Ortiz.
17. José Luis Aramendi Lizarraga.

Ordezkoak:

1. José Luis Bereau Larretxea.
2. Pilar Iridoi Etxarte.
3. José Javier Uranga Uranga.

E.A.J.-P.N.V.

1. Jokin Etxaniz Ageda.
2. M^a Carmen Gezala Oiarbide.
3. Agustín Basurko Aparicio.
(Independiente).
4. J. Ignacio Aranburu Alustiza.
(Independiente).
5. Gregorio Berrotaran Etxeberria.
(Independiente).
6. Carlos de la Peña Hornes.
7. Miguel Tovar López.
8. Txomin Solaegi Urkin.
(Independiente).
9. Maite Gorostidi Villanueva.
10. Prudencio Lekuona Enparan.
11. Elvira Pikabea Indo.
12. Maddy Ortiz Pikabea.
13. Joseba Alakano Ugaldere.
14. Otelia Aranburu Gortari.
15. Javier Barandiaran Santamaría.
16. Manuel Díaz Caminaur.
17. Iñaki Gezala Oiarbide.

Ordezkoak:

1. Gorka Souto Ruiz.
2. Gorka Ocio Larrañaga.
3. Aitor Kerejeta Cid.

Eusko Alkartasuna

1. Alfonso Oronoz Alcaín.
2. Ramón Kanpandegi Garmendia.
3. Patxi Goikoetxea García.
4. Guadalupe Larrarte Iturbe.
5. Patxi Lekuona Alkain.
6. Florencio Arrieta Mendizabal.
7. Montxo Díaz Vitoria.
8. José Manuel Garmendia Olascoaga.
9. Kontxita Portu Etxeverria.
10. José Miguel Izaguirre Iruetagoiena.
11. Ainhoa Oliveri Ruiz de Muniaín.
12. Emilio Iridoy Otamendi.
13. Mercedes Balerdi Laruskain.
14. Martín Ugaldere Orradre.
15. Juan J. Etxebeste Tolosa.
16. Manuel Larrarte Zuzaya.
17. Nestor Basterrechea Arzadun.

Ordezkoak:

1. José Ignacio López Samaniego.
2. M^a Antonia Salaberria Amunarriz.
3. Edurne Vitoria Berecibar.

◀ DEMOGRAFIA ▶

JAIOZAK

ABENDUA

- 22an: XABIER Garmendia Agirre
Gurasok: Jon Mikel eta Mari Karmen
- 31ean: ANE Casares Gil eta LIDE Casares Gil
Gurasok: Pedro eta Izaskun

URTARRILA

- 6ean: AINHUA Otaño Ugarte
Gurasok: Jose M^a eta M^a Aranzazu
- 17an: IORITZ Sorribail Belido
Gurasok: Juan Jose eta M^a Mlagros
- 26ean: TELMO Basterretxea Seijo
Gurasok: Juan Andres eta Idola
- 27an: LANDER Quintana Olazola
Gurasok: Miquel Angel eta Gudsalupe
- 31ean: ARTZAI San Jose Bidaurreta
Gurasok: Miquel Angel eta M^a Luisa

OTSAILA

- 10ean: ARITZ Gonzalez Amundarain
Gurasok: Pedro Arturo eta M^a Jesus
- 11ean: ENRIKA Amunarriz Oikiolegi
Gurasok: Fermín eta M^a Pui
- 17an: XABIER Balerdi Gokoetxea
Gurasok: Alberto eta M^a Jose
- 18an: XABIER Amunarriz Rodriguez
Gurasok: Fernando eta M^a Rosario
- 22an: NACIA Arruabarrena Sagazazu
Jose Manuel eta M^a Tatiana
- 22an: INIGO De La Calle Rodriguez
Gurasok: Jose Antonio eta Francisca
- 23an: LOREA Lekuna Legorburu
Gurasok: Enrique eta Miren
- 25ean: JOKIN Sagazazu Gil
Gurasok: Jokin eta M^a Mercedes
- 26ean: MELANIA Schroers Gezala
Gurasok: Klaus Konrad eta Juana Maria

MARTXOA

- 6ean: KOLDO Argote Garcia
Gurasok: Carlos eta Margarita
- 12an: LEIRE Jauregi Luis
Gurasok: Juan Ignacio eta Loreto
- 21ean: MARIUJI Tapia Vazquez
Gurasok: Juan M^a eta Amada
- 22an: ANDER Alberdi Prieto
Gurasok: Tomas eta Fatima
- 23an: JON MIKEL Pikabea Arburu
Gurasok: Francisco eta M^a Mercedes
- 26ean: AMAIA Jauregi Villate
Gurasok: Jose M^a eta M^a Encarnación
- 30ean: JON Izeta Andres
Gurasok: Juan M^a eta Esperanza

APIRILA

- 1ean: BENIAT Lekuna Mariakel
Gurasok: Javier eta M^a Victoria
- 4ean: LOREA Abejon Sunsundegi
Gurasok: Jose Manuel eta M^a Pilar
- 6ean: IÑIGO Iruña Herrera
Gurasok: Angel M^a eta Ana M^a
- 7an: ERIKA Ormazabal Garcia
Gurasok: Jose M^a eta M^a Belen
- 11ean: PATRICIA Garcia Zabai
Gurasok: Carlos Juan eta M^a Jose
- 12an: LANDER Jauregi Tolosa
Gurasok: Jose Javier eta Miren Amaia
- 14ean: IORITZ Mantlerola Indoi
Gurasok: Manuel eta Miren Josune
- 16ean: ALEXANDER Corral Rodriguez
Gurasok: Alberto eta Aurora
- 16ean: OHANE Emazabal Lekuna
Gurasok: Agustín eta M^a Concepcion
- 21ean: IRENE Litago Mendizabal
Gurasok: Francisco Eduardo eta M^a Jesus

EZKONTZAK

ABENDUA

- 1ean: German Moran Mixelena, Hondarrribia eta
Miren Arantzazu Arretxe Arzak, Donostiako.

- 1ean: Lorenzo Agirre Oronoz, Hondarrribia eta
Itziar Jauregi Encinas, Hondarrribia.
- 15ean: José Ramón Ezaguirre Etxagorri, Hondarrribia eta
Luisa-Gema Loro Ferrer, Madrilgo.
- 15ean: Guillermo Gonzalez Sanz, Zaragozako eta
M^a Luisa Trevijano Lazkanotegi, Hondarrribia.
- 15ean: Juan Manuel Moran Mixelena, Hondarrribia eta
M^a Jesus Martinez Velasco, Hondarrribia.

URTARRILA

- 12an: Alfredo Manuel Busto Alkain, Hondarrribia eta
M^a Carmen Gonzalez Amunarriz, Hondarrribia.
- 12an: Jose M^a Berroteran Ezaguirre, Hondarrribia eta
Amaia Sampedro Mantlerola, Iruongo.
- 13an: Pedro Jose Arruabarrena Unzueta, Donostiako
eta Itziar Salaberria Lekuna, Hondarrribia.
- 19an: Antonio Emazabal Zabala, Hondarrribia eta
Gema Sorondo Antxorkoki, Hondarrribia.
- 19an: Pedro Alza Laruskain, Hondarrribia eta M^a Te-
resa Santos Bachiler, Hondarrribia.

OTSAILA

- 9an: Ramon Diaz Vitoria, Hondarrribia eta
Ana Ariztizabal Arratibel, Iruongo.
- 15ean: Luis Urman Cabrerizo, Lasarteo eta
M^a Inmaculada Garcia Benito, Hondarrribia.
- 22an: Pablo Gonzalo Amunarriz Aranguren, Hondarri-
bia eta Britt Elisabet Palsen, Estocolmoko.

MARTXOA

- 2an: Francisco Mendizabal Laruskain, Hondarrribia
eta Silvia Tenorio Del Valle, Iruongo.
- 2an: Domingo Corral Hernandez, Hondarrribia eta
Vicenta Davila Garcia, Iruongo.
- 2an: Fernando Jimenez Calvo, Iruongo eta M^a Gude-
lupe Amorruutu Etxebarri, Hondarrribia.
- 9an: Aitor M^a Ageda Quesada, Iruongo eta M^a Imma-
culada Concepcion Oiarzabal Etxebarri, Hondo-
rribia.
- 9an: José Luis Gallo Garmendia, Hondarrribia eta
Ana Miren Arretxe Arzak, Donostiako.
- 16ean: Jose Antonio Amunarriz Larrea, Hondarrribia eta
Rosa M^a Aleixa Zabala, Donostiako.
- 16ean: Pedro Ignacio Lopez Larrea, Hondarrribia eta
M^a Jose Molina Martinez, Iruongo.
- 26ean: Jose Javier Olazabal Ado, Hondarrribia eta
M^a Rosario Fernandez Olmeda, Iruongo.
- 30ean: Angel Ramos Montero, Iruongo eta
M^a Concepcion Vacas Agirre, Hondarrribia.

APIRILA

- 5ean: Francisco Javier Laguna Baz-Romero, Iruongo eta
Ana M^a Egizabal Larrauri, Hondarrribia.
- 5ean: Juan Carlos Larrarte Arbelaz, Hondarrribia eta
Cristina Jimenez Ruiz.
- 6ean: Luis Antonio Sanchez Cano, Hondarrribia eta
Miren Arantz Olazola Emazabal, Hondarrribia.
- 6ean: Ignacio M^a Anzars Otegi, Hondarrribia eta
M^a Mercedes Sorondo Urrestarazu, Hondarrribia.
- 13an: Juan Manuel Caballero Miguel, Hondarrribia eta
M^a Teresa Leta Ezaguirre, Iruongo.
- 13an: Benito Pizarro Merino, Zestoako eta
Emilia Rosellon Gonzalez, Hondarrribia.
- 20ean: Francisco Ariztizabal Sorondo, Hondarrribia eta
M^a Victoria Albetur Etxaide, Hondarrribia.

HERIOTZAK

ABENDUA

- 23an: Jose M^a Garmendia Gobiuru 91 urteko
Beri Kalea 2.
- 23an: Roberto Buzo Garcia 79 urteko
San Gabriel Egoitza.
- 25ean: Antonio Madurga Lopez, 29 urteko
Arma Plaza.
- 26ean: Mikel Aranzburu Larrarte, 61 urteko.
- 28an: Martin Jose Balerdi Mendizabal 71 urteko
San Pedro Kalea 16.
- 30ean: Carmen Sagazazu Gokoetxea 80 urteko
San Pedro 85.

URTARRILA

- 3an: Augusto Ambilla Narbarte, 53 urteko
Rosalia Dolores Alberdi Martiarena, 80 urteko
Artol Auzoa, Artolko Baseria.
- 6ean: Carmen Yarra Oronoz, 100 urteko
Nabarro-Enea Baseria.
- 7an: Fernando Arzadun Bararain 91 urteko
Iruendietako Baseria.
- 16an: Juana Edurza Belmont, 87 urteko
Portugain Etxea.
- 18an: Francisco Ariztizabal Balerdi, 71 urteko
Gabarrari Antzoki, Itas-lar.
- 25ean: Ignacio Inazabal Oronoz, 64 urteko
Bernat Etxepare 3.
- 27an: Kosme Iruazusta Mixelena, 86 urteko.
- 27an: Dolores Chicon Gomez, 82 urteko
Denda Kalea 6.
- 27an: Francisco Laruskain Indoi, 92 urteko
Atalaia Baseria.
- 28an: Veronica Zunzunegui Etxebarri, 90 urteko
Bordaberri Txiki Baseria.

OTSAILA

- 1ean: Magdalena Kanpandegi Aranzasti, 64 urteko
Kale Nagusia 13.
- 3an: Caridad Moro Gonzalez, 80 urteko
Fraskueto Murrua.
- 4ean: Bibiana Agirre Ganza, 90 urteko
Eguzki Lore 7.
- 8an: Miguel Esain Dorronsoro, 81 urteko
Ollurta Baseria.
- 11an: Manuel Urzelaizeta Galarza, 80 urteko
Istiloaundiz Baseria.
- 16ean: Antonio Egia Berroteran, 19 urteko
Lur-Gori 4.
- 17an: Antonio Arozena Garmendia,
Baserritar Etxebidea.
- 19an: Lucia Astesunarra Apeztegia, 67 urteko.
- 20ean: Maria Aginagade Etxenke, 90 urteko
Pasaia Kalea, Errezubi bi.
- 24ean: Jose Maria Lasa Ormazabal, 75 urteko
Belezarren Markes Kalea.
- 26ean: Enrique Garmendia Duñat, 76 urteko.
- 26ean: Manuel Narbarte Sagazazu, 70 urteko
Bernat Etxepare Kalea.
- 27an: Ignacio Rekalde Rodriguez, 36 urteko
Jabier Ugarte Kalea, Bista-Eder.

MARTXOA

- 10ean: Fernando Alvarez Oiaso, 48 urteko
San Pedro Kalea.
- 13an: Jesus Martinez Lozano, 71 urteko
Kosta Auzoa.
- 18an: Lander Emazabal Lopez, 14 urteko
Baserritar Etxebidea 4.
- 22an: Cristina Leta Larrarte, 87 urteko
Zuloaga Kalea 18.
- 25ean: Mercedes Usabiaga Irastorza, 89 urteko
San Gabriel Egoitza.
- 26ean: Jose Iglesias Barral, 71 urteko
General Leiba 2.
- 28an: Francisco Indoi Miranda, 80 urteko
San Gabriel Egoitza.

APIRILA

- 2an: Julian Ugarte Arretxe, 65 urteko
Median Borda.
- 7an: Eusebio Azpiroz Otamendi, 65 urteko.
- 8an: Marcelina Llanos Martin, 61 urteko.
- 8an: Francisco Javier Gamarra Narbarte, 38 urteko
Sabin Arana Kalea.
- 10ean: Jorge Estomba Urzelaizeta, 65 urteko
Mantzietegi-Beri, Jaizubia Auzoa.
- 11ean: Pilar Martinez Berroteran, 83 urteko
Santiago Kalea.
- 14an: Ramon Martiarena Arana, 19 urteko
Jaizubiei Etxebidea, Egunabar.
- 15ean: Marcelina Kanpandegi Indoi, 80 urteko
Harreslenda 6.
- 26an: Maria Ugarte Olazabal, 66 urteko
Ganza-Beri Baseria.
- 26an: Maria Josefa Olaskoaga Ortiz, 61 urteko
Mendulu Zahar.

"PIRU-MIRU" LEHIAKETA

Ez zen erraza Gabonetako zenbakian Piru Miruk jarri zigun asmakizuna, tranpa antzekoa bait zuen. Ahaztu dutenei gogoratzeko errepikatuko dugu:

Arabiarr batek bere 17 (hamazazpi) gamelu banatu nahi zituen bere hiru semeen artean. Bati erdiak eman nahi zizkion, beste bati heren parte eta azkenari bederatzirena. Gameluak, ordea, ezin ziren ez zatitu ez puskatu. Nola moldatu zen? Jakintsu batek aholkatu ziona eginda:

Auzoko bati gamelu bat eskatu zion eta orduan 18 zituen ($17 + 1 = 18$). Lehenengo semeari 9 gamelu eman zizkion ($18 : 2 = 9$), bigarrenari 6 ($18 : 3 = 6$) eta hirugarrenari 2 ($18 : 9 = 2$). Beraz, 17 gamelu banatu zituen ($9 + 6 + 2 = 17$). Azkenean, hemezortzigarrena, bere jabeari itzuli zion.

Garbiñe eta Alaitz Darceles Tife argiek, auzoko gameloduna aipatu gabe, garbi adierazi digute beren erantzunetan arabiarrek 18 gamelu zituela ezinbestean. Beste batzuk, bestelako sistemak erabiliz, 9, 6 eta 2 zirela banatutako gameluak esan digute, gameluak ez zatitzeko bi txandatan banatuz, adibidez, lehenengoan 14 (8, 5 eta 1 banatunik) eta, ondoren, gelditzen ziren hirurak (3, 2 eta 1). Horien artean, Maider Amiano, Irati Bereau, Marta Hernandez, Larraitx Lizarazu eta Itziar Olaso ditugu.

Gameluekiko agertu duten zaletasunagatik eta Kuwaiteko gerra funtsgabearen bukaera txanpainaz ospatu dezaten, bi mila pezeta hartuko ditu bakoitzak. Joxe Genua, berriz, postreirik gabe geldituko da zigortuta horrelako asmakilo asmagaitzak asmatzeagatik.

Honetarako ere ekarri dizkigu asmakizun berriak Joxek; Piru-Miruk, ordea, berriro adarrik jo ez diezagun, erantzunak ere emateko eskatu dio, aurrekoan bezala gameluak puskatuz eta desguazatuz Txingudiko bazter ekologikoak zikintzen inor ibil ez dadin. Beraz, oraingoan ez ezazue erantzunik bidali, bertan daukazue eta.

□ GALDERAK.

1. Nork daki zenbat metro dituen Gaintxurizketak bere tontorrean itasorearen nibeletik? Norbaitek ez badaki, bertara joan eta ikusiko du, oso ondo idatzia dago eta.
2. Denok ezagutzen dugu "topo" trenbidea; hona, bada, galderak:

- a) Bidasoa ingurutik abiatuta Donostia aldera goazelarik, zenbat herriren lurreetatik pasatzen da topo Errenteriara iritsi baino lehen?
- b) Zein dira herri horien izenak?
- c) Nola da "topo" euskaraz?
- d) Zergatik esaten zaio trenbide horri "topo"?

(Erantzunak, Gaintxurizketako tontorreraino igotzen ibili gabe, ale honetako 3. orrialdean eglazta ditzake asmatzaile asmatikoak).



Lezo eta Hondarribiaren arteko muga Gaintxurizketan.



Anigasasi-Berri, mugako baserria.



Irun eta Hondarribiaren arteko mugarris. Atzean Istiwaundi baserria.

Atlantes

GORRITAREN GERLARIAK

Gidoia: Nerea Sanchez

Marrazkiak: Aiert Alonso eta
Galder Alonso.

Sai


ORAIN DELA MILANERA MILAN UITE, KANDEENTE
ZAHARRETAKO ZELAIARIK GORRI ESTALIZEN ZUREN GUDAK
MENDI, ATLANTES-ENK ZELAIARIK EZ ZUREN SANBESPON,
ODOLA EGUNEKO SUATZEN ZEN BOTERERAREN SINBOLO BEZALA...




... GUDA BATEN ONDORREN ATLANTES-ENK ERPEDE
ZALDIAK GELDITZEN DEN BAKARRA DA.



ARMIAK ETA BERE ESKERITZA DITU ANDREZ-ANDRE.



HAUEK INGURUKO HERRIAK BAIKALDI DITUZTE...
ATLANTES DA ZUTIK GELDITZEN DEN BAKARRA.



ATLANTES!!

